

## 2015/04/14(e)ko saioa

### **HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.**

Jaurlaritzak lehen Enplegu Plana prestatu du Euskadiko Administrazio Orokorreko langileen zahartzearekin, desberdintasunarekin eta bitartekotasunarekin bukatzeko.

Eusko Jaurlaritzak ez du premiazkotzat jo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko lege proposamena.

### **OGASUN ETA FINANTZA SAILA X. LEG.**

Erabakia, honen bidez lankidetzaz hitzarmena izenpetzen da kontratazio plataformen elkarreragintasunaren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoa eta Ogasun eta Herri Administrazioaren Ministerioaren artean.

### **HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.**

Agindua, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko #Gure Artea# sariak arautu eta horietarako deialdia egiteko dena.

Dekretua, "Dantzerti" Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi-mailako Eskola sortzen duena.

## HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.

Jaurlaritzak lehen Enplegu Plana prestatu du Euskadiko Administrazio Orokorreko langileen zahartzearekin, desberdintasunarekin eta bitartekotasunarekin bukatzeko.

### LABURPENA

Planak agerian jartzen duenez, langileen batez besteko adina 50,8 urtekoa da, langileen % 68 2030a baino lehen erretiratuko da eta bitartekotasun-tasa % 33,9 da.

Planak genero-desberdintasunak antzeman ditu: langileen artean gehiago dira emakumeak, baina kategoria profesional baxuagoko lanpostuak dituzte eta bitartekotasunak gehiago eragiten die.

Jaurlaritzak jarduera bateratua proposatu die sindikatuei pertsonala gaztetzeko, bitarteko lanpostuak deskapitalizaziorik gabe finkatzeko, genero-berdintasuna lortzeko eta lanpostuak herri-administrazio publiko berriaren premietara egokitzeko.

Gobernu-kontseiluak lehenengo Enplegu Planaren zirriborroa aztertu du gaur. Lehen aldia da Euskadin halako plan bat prestatu dela autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorrean lanean aritzen den pertsonalaren egoera aztertzeko. Planaren helburua da Euskadiko herri-administrazioaren zerbitzu orokorretan lan egiten duen pertsonalaren egoera aztertzea 4.888 langile daude, karrerako eta bitarteko funtzionarioen artean eta, azterketa hori abiapuntu harturik, administrazioaren egitura eraginkorki eta efizienteki berrantolatzeko proposamena egitea, erantzuna emateko epe motzeko / erdi-epeko hiru erronka hauei:

Pertsonala gaztetzea eta bitarteko lanpostuak finkatzea, baina aspalditik Administrazio Orokorrean lan egiten duen behin-behineko langileen deskapitalizazioa saihestuz.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea.

Lanpostuak egokitzea, herri-administrazio elektronikoaren eta teknologia berrien ondorioz sortutako premietara moldatzeko.

Eusko Jaurlaritzak atzo aurkeztu zien lehenengo Enplegu Planaren zirriborroa sindikatuei, Lakuan egindako Euskadiko Administrazio Orokorreko Mahai Sektorialaren bileran. Eusko Jaurlaritzaren helburua da sindikatuekin batera lan egitea planaren azken idazketan eta martxan jartzean, dokumentuan antzematen diren arazoak errotik mozteko.

### GAUR EGUNGO RADIOGRAFIA

Dokumentuak gaur egungo 4.888 lanpostuen egoera eta postuok betetzen dituzten langileak deskribatzen ditu hasieran:

**GENEROA:** Euskadiko Administrazio Orokorrean, emakume gehiago dabil lanean; **% 62,1 emakume, % 37,9 gizonen aldean.**

GENEROA	PERTSONA KOPURUA
---------	------------------

Gizonak	1.851 (% 37,9)
Emakumeak	3.037 (% 62,1)

**ADINA:** Langileen batez besteko adina **50,86 urte**koa da. Buruzagitza postuak betetzen dituzten pertsonen adinari bagagozkio, batezbestekoa 54,9 urteraino goratzen da.

KATEGORIA PROFESIONALA	BATEZBESTEKOA (URTEAK)
Buruzagitza postuak betetzen dituzten pertsonak	52,8
Teknikarien kidegoa	49,72
Administrarien eta laguntzaileen kidegoa	51,22
Mendekoen kidegoa	50,46

LANGILEAK	BATEZBESTEKOA (URTEAK)
Bitarteko funtzionarioak	45,37
Karrerako funtzionarioak	53,61

GENEROA	BATEZBESTEKOA (URTEAK)
Gizonak	51,68
Emakumeak	50,25

**ERRETIROAREN ZENBATESPENA:** gaur egun Administrazio Orokorrean lan egiten duten pertsonen % **68,08 2014 eta 2030 bitartean** erretiratuko da. Aintzat hartzen baditugu epe horretan **buruzagitza postuetarako** zenbatetsi diren erretiroak, % **80,36eraino igotzen da ehuneko hori**.

KATEGORIA PROFESIONALA	BATEZBESTEKO ERRETIRO-DATA (URTEA)
Buruzagitza postuak betetzen dituzten pertsonak	2026
Teknikarien kidegoa	2029
Administrarien eta laguntzaileen kidegoa	2027
Mendekoen kidegoa	2028

LANGILEAK	BATEZBESTEKO ERRETIRO-DATA (URTEA)
Bitarteko funtzionarioak	2033

Karrerako funtzionarioak	2025
--------------------------	------

GENEROA	BATEZBESTEKO ERRETIRO-DATA (URTEA)
Gizonak	2027
Emakumeak	2028

**FUNTZIONARIOAK:** Euskadiko Administrazio Orokorrean lan egiten duten 4.888 langileak harturik aintzat, **bitartekotasun-tasa % 33,90** inguruan kokatzen da, eta gehiago eragiten die emakumeei. Buruzagi eta teknikari lanpostuei erreparatzen badiegu, bitartekotasun-tasa % 44,06raino goratzen da.

LANGILEAK	PERTSONA KOPURUA
Bitarteko funtzionarioak	1.657
Karrerako funtzionarioak	3.231

LANGILEAK	BURUZAGIAK	TEKNIKARIAK
Bitarteko funtzionarioak	61	903
Karrerako funtzionarioak	443	781

GENEROA	BITARTEKO FUNTZIONARIOAK	KARRERAKO FUNTZIONARIOAK
Gizonak	569	1.282
Emakumeak	1.088	1.949

**KATEGORIA PROFESIONALA:** Administrazio Orokorrean, langile gehien dituen kidego profesionala administrari eta laguntzaileena da. Generoari erreparatuz gero, teknikarien artean **% 57,90 emakumeak dira; buruzagitza-postuetan, ordea, % 42,66.**

KATEGORIA PROFESIONALA	PERTSONA KOPURUA
Buruzagitza postuak betetzen dituzten pertsonak	504
Teknikarien kidegoa	1.684
Administrarien eta laguntzaileen kidegoa	2.196
Mendekoen kidegoa	504

KATEGORIA PROFESIONALA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Buruzagitza postuak betetzen dituzten pertsonak	289	215
Teknikarien kidegoa	709	975

### BERRANTOLAKETAREN LEHENTASUNEZKO HIRU HELBURUAK

Behin datuak aztertu ondoren, *Enplegu Planak* egiturazko berrantolaketa bat proposatzen du, **lehentasunezko hiru jarduera-ardatzetan oinarritua**, erantzuna emateko Euskadiko Administrazio Orokorrek epe motzean / erdi-epetan heldu beharreko erronkei.

**1- Pertsonala finkatzea eta gatzetzea:** kontuan hartzen baditugu pertsonalaren batezbesteko adina eta epe motzera aurreikusten diren erretiro-kopuru altua, 20. hamarkada garrantzitsua izango da Euskadiko Administrazio Orokorrean kidego guztietako langileak berritzeko.. Jaurlaritzak funtsezkotzat jotzen du pertsonalaren deskapitalizazioa saihestea eta, horregatik, honako hau proposatzen du:

**Lekualdatze-lehiaketa bat**, hutsik dauden lanpostuak betetzeko.

**Enplegua finkatzeko prozesu bereziak Administrazio Orokorrean urteak daramatzen bitarteko langileentzat.** Helburua da deskapitalizazioa saihestea, ez daitezela galdu urteetan lanean ikasitako jakintzak eta hartutako trebeziak. Orobat lortu nahi da Euskadiko herri-administrazioan erregistratutako bitartekotasun-tasa altuarekin amaitzea (% 33,9 oro har; % 44 buruzagi eta teknikari postuetan).

**Lan-eskaintza publikoa**, aurrera egiteko Eusko Jaurlaritzak kalitateko enplegu publikoarekin duen konpromisoan.

**2- Antolamendu-egituraren egokitzapena:** Eusko Jaurlaritzak funtsezkotzat jotzen du gobernuaren egitura teknologia berrien eta herri-administrazio elektronikoaren ondorioz sortutako premien arabera eguneratzea eta berrantolatzea. Horretarako, egitura osatzen duten lanpostuen zerrenda eguneratzea proposatzen du.

**3- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna:** Eusko Jaurlaritzak lehentasunezko ardatz gisa hartu du, halaber, txostenean agerian geratu diren desberdinkeriak saihesteko lan egitea:

Euskadiko Administrazio Orokorrean gizon baino emakume gehiago dago lanean.

Emakumeak gazteagoak dira.

Gizon baino emakume gehiago daude bitarteko postuetan.

Emakume gehiago daude administrari eta laguntzaileen kidegoan, eta gizon gehiago buruzagitza-postuetan.

Administrazio orokorrean lan egiten duten emakumeen % 60,8ak bere prestakuntza-mailaren azpitik

dauden lanpostuak betetzen ditu.

## **PROPOSATUTAKO BESTE JARDUKETA BATZUK**

Era berean, Euskadiko Administrazio Orokorreko Enplegu Planak oinarritzat jotzen du aurrera egitea langile publikoen prestakuntzaren eta gogobetetzearen alorrean. Horregatik, honako hauek abiaraztea proposatu du:

**Karrera horizontala ordaintzeko diseinuak:** hau da, ordainsarien hobekuntza eta aitortza profesionala, lanpostuz aldatu gabe.

Lanpostu bakoitzaren premia errealetara egokitutako **prestakuntza-ibilbide eta -planak.**

**Langile berrientzako harrera-eskuliburua;** hartara, Euskadiko Administrazio Orokorrean iristen den langileak eskura edukiko du bere lana ahalik eta modu eraginkorrean betetzeko behar dituen informazioa, prestakuntza eta baliabideak.

**Mentoring plana:** ez dadin galdu erretiratzeko daudenen jakintza.

**Enplegatu publikoek** bere lanpostuarekin **duten gogobetetze maila hobetzea:** Planean, garrantzizkotzat jotzen da enplegatu publikoen gogobetetzera langileek beren lana Eusko Jaurlaritzak herritarrekin hartutako konpromisoari erantzuten diela identifikatzea.

**Eusko Jaurlaritzak ez du premiazkotzat jo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko lege proposamena.**

## **LABURPENA**

**Eusko Jaurlaritzak gogora ekarri du gaiaren gaineko euskal araudia, indarrean baitago eta ez zaharkituta, ezta gaingaituta ere. Hortaz, eraginkorragoa iruditzen zaio betearazpen mailakatuaren sustatzea lege berriak sortzea baino.**

**Gainera, ekimenak ez dakar hobekuntza nabarmenik bat ere indarreko araudiaren aldean. Horrenbestez, Jaurlaritzak botere publikoen eta kontsumo-sektoreko enpresen arteko lankidetzaren alde egingo du.**

**Jaurlaritzak ez dator bat ekimenak proposatzen duen zehapen-erregimenarekin, ez delako eraginkorra, ez eta kontsumo-alorrean euskara gehiago erabiltzeko motibagarria ere, gure errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta.**

Gobernu Kontseilua EH Bildu legebiltzar-taldeak proposatutako *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen eta sektoreko betekizunen* lege-proposamena aintzat hartzearen aurka agertu da.

Lehenik, Eusko Jaurlaritzaren iritzian, ekimena ez da beharrezkoa, Euskadik dagoeneko indarreko araudi nahikoa duelako (\*) kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubidea aitortu eta bermatzeari dagokionez, eta araudia ez dagoelako zaharkituta, ezta gaindituta ere, egungo errealitate soziolinguistikoan. Alde horretatik, Jaurlaritzaren ustez, eraginkorragoa da indarreko araudia modu mailakatuan betearazteko bitartekoak diseinatzea lege berriak orain sortzea baino.

Gainera, ekimen legegile horrek ez du ekarpen nabarmenik egiten indarreko araudiaren aldean. Esaterako, Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua sortzea proposatzen du, baina zigilu hori 2008an sortu zen; Bikain, Hizkuntza Konpromisoaren eta Hizkuntza-kudeaketako Kalitatearen Ziurtagiria.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren aburuz, lege-proposamenak dakarren zehapen-erregimena, batetik, arbitrarioa da sektore jakin batzuetan -garraioan, establezimendu kolektiboetan, etab.- baizik ez dituelako aurreikusten 6.000 euroko isunak. Bestetik, zehapen-erregimenak ez dira tresna eraginkorrenak egun, ez euskara sustatzeko pizgarri bikainena kontsumoaren esparruan, ezta kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak egiaz gauzatzeko bitarteko ona ere. Hala bada, Eusko Jaurlaritzak inplikazioaren, adostasunaren eta botere publikoen eta kontsumo-sektoreko enpresen artean lankidetzaren sustatzearen alde egingo du apustu.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak uste du hizkuntza-normalizazioa lortzeko egiaz eraginkorra dena euskara sustatzeko politikak zeharkakoak izatea dela, eta esparru guztietako arauak gai horri tartea eskaintzea, ez, jakina, proposatutakoaren moduko lege eskusiboak onartzea.

**(\*) 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzkoa (otsailaren 9ko 2/2012 Legeak aldatua).**

**(\*) 123/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza-eskubideei buruzkoa (uztailaren 20ko 204/2010 Dekretuak aldatua).**

## **OGASUN ETA FINANTZA SAILA X. LEG.**

**Erabakia, honen bidez lankidetzaren hitzarmena izenpetzen da kontratazio plataformen elkarreragintasanaren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoa eta Ogasun eta Herri Administrazioaren artean.**

### **LABURPENA**

Gobernu Kontseiluak baimena eman du gaur Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren arteko hitzarmen bat sinatzeko. Hitzarmenaren xedea sektore publikoko entitate guztien lizitazioetarako deialdiak eta deialdi horien emaitzak Internet bidez argitaratzea da, eragile ekonomikoentzat eta herritarrentzat informazio guztia eskuragarri jarriko duen informazio sistema baten bitartez.

Horrela, lizitazioetarako deialdiei eta deialdi horien emaitzei buruzko informazioa, interkonexio-baliabideen bidez, benetan eskuragarri dagoela bermatu nahi da.

## **HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.**

**Agindua, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko #Gure Artea# sariak arautu eta horietarako deialdia egiteko dena.**

### **LABURPENA**

2015eko GURE ARTEA SARIETARAKO DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, Gure Artea Sariak arautu eta horietarako deialdia egiten duen Agindua onartu du. Sariok, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzea dute helburu.

2015eko deialdi honetan, Gure Artea Sariak hiru ataletan deitzen dira:

Ibilbide artistikoa aitortzeko saria, 25.000 eurokoa eta pertsona fisikoei zuzendua.

Sorkuntza lana aitortzeko saria, 25.000 eurokoa eta pertsona fisikoei zuzendua.

Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria, 15.000 eurokoa, eta pertsona fisiko nahiz juridikoei zuzendua.

Huatagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

**Dekretua, "Dantzerti" Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi-mailako Eskola sortzen duena.**

### **LABURPENA**

"DANTZERTI", EUSKADIKO GOI MAILAKO ARTE DRAMATIKO ETA DANTZA ESKOLA SORTU DA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du, "Dantzerti" Euskadiko Goi Mailako Arte Dramatiko eta Dantza Eskola sortzen duen



Dekretua.

Dantzerti arte dramatikoko eta dantzako goi-mailako arte-ikasketak eskainiko dituen ikastetxea da, eta Bilboko Ibarrekolanda Plazan izango du egoitza. 2015-2016 ikasturtean jarriko dira abian ikasketa hauek.

Dantzertik espezialitate hauek irakatsiko ditu: Interpretazioa (arte dramatikoan) eta Koreografia eta Interpretazioa (dantzan).